

TOLOSA / Txikitatik hasi behar delako

Hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan zuten atzokoan gaztetxoek, Haur Liburuaren Egunean.

Atzo, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna izaki, hainbat ekitaldi izan ziren eskualdeko herri askotan. Urtero nazioarte mailan burutzen den egun honek haurrengan irakurzaletasuna bultzatzea izaten du helburu, eta hain zuzen ere, antolatzen dituzten ekitaldiekin hori bultzatu nahi da gaztetxoengan. Leku batzuetan aste osora ere luzatu dituzte ekitaldiok, izan ere, Tolosako Samaniego ikastetxean, esaterako, Literatur Astea ari dira ospatzen astelehenaz geroztik, eta gaur arte makina bat irakurketa saio egin dituzte gurasoek, ikasleek nahiz gonbidatu bereziek. Berezitasun bezala, irakurketa saio hauek euskaraz ezezik beste hainbat hizkuntzatan ere egiten dituzte. Bidegoianen eta Ibarren herenegun ospatu zuten eguna. Bidegoianen, atzo Berrobin egin zuten bezala, ipuinak irakurri zituzten gazteek euren artean, eta originaltasuna saritu zuten. Ibarren, berriz, Jon Arretxe idazlea egon zen ikasleengan literatura sustatzen. Unibertsitateko bere ikasleen garaian oinarritutako pasadizoak kontatu zituen eta Ibarako Eneko Fernandez bere laguna ere aipatu zuen. Ostegunak liburu arrakastatsua aurretik irakurria zuten gazteak ederki poltsikoratu zituen, bertan agertzen diren txuleta, lige eta ikasle kontuen berri emanaz, Uzturpe Ikastolako liburutegian eginiko saioan, azaldu dute Uzturpetik.

Tolosan, bestalde, goxoki bat banatu zuten liburutegian maileguan liburu bat hartzeagatik. Marrazkiekin osaturiko erakusketa ere zabaldu zuten, eta ipuin kontaketa saioa izan zen Miriam Mendozaren eskutik.

Leitzan eta Areson, Ana Meabek izan zuen ipuin kontaketa egiteko ardura, eta horretaz gain, aurtengo Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren kartela ere landu zuten.